

INGELES HIZKUNTZAKO AZTERKETAK
GURASOENTZAKO GIDA



© Mat Wright

EDUKIAK

Ongietorriak British Councilera	3
Gurasoek ingeles azterketen inguruan maiz egiten dituzten galderak	4
Azterketa bat egin British Councilarekin	7
Zure seme-alaba ingeles azterketetarako laguntzen	9
Zure seme-alaba azterketa egunean eskaini ahal diozun laguntza	10
Online baliabideak	11–15

NORTZUK GAREN

British Council harreman kulturaletarako eta hezkuntza aukeretarako Erresuma Batuko erakunde internazionala da. Erresuma Batuko eta beste herrialdetako herritarren arteko ezagutza eta elkar-ulertze lagunkoia sortzen dugu. Hori egiten dugu bai Erresuma Batuan bai lan egiten dugu herrialdeetan ekarpen positiboa eginez - bizitzak aldatuz aukeraz sortuz, harremanak eratuz eta konfiantza sorraraziz.

www.britishcouncil.es/eu/guri-buruz/espainia

Ingeles hizkuntzaren irakaskuntzan eta ebaluazioan eta ingeles irakasleei eskaintzen diegun laguntzagarri nazioarteko aintzatespena dugu. Urtero, hiru milioi pertsona baino gehiagok azterketa internazionalen bat egiten du British Councilen laguntzarekin. Azterketak eskaintzen ditugu Erresuma Batuko erakunde, instituzio profesional eta unibertsitateen partez munduko 95 herrialdetan.

www.britishcouncil.es/eu/azterketak

ONGIETORRIAK BRITISH COUNCILERA

Jakin badakigu ingeles hizkuntzako azterketa bat egitea, etorkizunean izan dezakeen garrantziagatik, zerbait berezia dela eskola-adinean diren gazteentzat eta euren gurasoentzat. Gida hau sortu dugu British Councilera ongi etorria emateko eta zuei eta zuen seme-alabei euren azterketen prestaketa prozesuan eskainiko dizuegun laguntza azaltzeko. Ikastetxeekin eta hizkuntza-eskolekin batera, esperientzia hori estresagarria izango ez dela bermatu nahi dizuegu.

Gida honetan, ingeles azterketen inguruko informazioaren; gurasoek maiz egiten dituzten galderen; aholkuen; eta, zuen seme-alabek euren azterketak prestatzeko erabil ditzaketen online baliabideen inguruko informazioa aurkituko duzue.

Gida honen online bertsioak argibide eta baliabide gehiagorako estekak ditu.

Ingeles hizkuntzako azterketetarako sarrera

Badira zure seme-alabaren ingeles maila ebalua dezaketen hainbat azterketa eta proba. Hezkuntza-sistema eta ingeles-eskola gehienek azterketa edo/eta proba horiek aurreikusten dituzten euren curriculumean. Aldi berean, badira nazioarte mailan aintzatespena duten hainbat ingeles azterketa.

Hemen dituzue ingeles azterketa formal bat egiteak dituen zenbait abantaila:

- Etorkizunerako hezkuntza-aukerak sortzea. Bertako zein atzerriko hainbat unibertsitatek eta eskolak nazioarte mailan aintzatespena duten ingeles ziurtagiriak eskatzen dituzte ikasleen ingeles-maila egiaztatzeko.
- Etorkizunerako aukera profesionalak sortzea. Horrelako ziurtagiri bat baliagarria izan daiteke enplegu-emateen aurrean zuen ingeles-maila egiaztatzeko.
- Azterketak garapena erakusteko modu ezin hobe dira eta oso motibagarria da hurrengo azterketa-mailara iristea.
- Azterketetarako prestatzea komunikaziorako eta ikasketa-trebetasunetarako oso baliagarria da.
- Ingeles hizkuntzaren ikaskuntza prozesuaren maila bakoitzeko azterketa bat egitea baliagarria da etorkizunean bestelako maila altuagoko egiaztapenak lortu behar badira konfiantza bereganatzeko.



Azterketa bat prestatzeak haurrak laguntzen ditu euren ingeles hizkuntzaren ikasketa prozesuan. Azterketa formal bat egiteak ingeles hizkuntzaren mailaren ziurtagiri lortzeko bide ematen du eta hori edonor harro sentiarazi behar duen lorpen bat da.

GURASOEK INGELES AZTERKETEN INGURUAN MAIZ EGITEN DITUZTEN GALDERAK

Gure irakasleek eta azterketa saileko langileek mundu osoko milaka gurasoekin hitz egiten dute urtero. Hemen dituzue ingeles azterketen inguruan sarritan jasotzen ohi ditugun zenbait galdera.



British Councilk zure herrialdean eskaintzen dituen azterketak gure webgunean ikus ditzakezu.
www.britishcouncil.es/eu/azterketak

ZERGATIK EGIN BEHARKO LUKE NIRE SEME-ALABAK AZTERKETA FORMAL BAT?

Azterketa edo proba formal egin ondoren ingeles-mailaren egiaztagiri bat lortzen da. Hau garrantzitsua izan daiteke atzerriko unibertsitatearen batean ikasteko eskaera egin nahi duten gazteentzat. Aldi berean, ibilbide profesional arrakastatsu bat lortzeko lagungarri ere izan daiteke. Azterketa baterako euren burua prestatzen dutenean haurrek bere lorpenen eta garapenaren berri izaten dute. Lorpen horiei esker, haurrek testuinguru sozialetan komunikatzeko konfiantza garatzen dute, adibidez, lagunak egiteko, bidaiatzeko edota eskola extra-curricularretan.

NOIZ EGIN BEHARKO LUKE NIRE SEME-ALABAK INGELES HIZKUNTZAKO AZTERKETA FORMAL BAT?

Zure seme-alabak ingeles azterketa edo proba bat egin dezake bere ikasketa ibilbidearen edozein momentutan: adibidez, urte amaieran edo bere ingeles-maila egiaztatzen duen ziurtagiri bat lortu behar duenean. Ikastetxean diren bitartean horrelako azterketaren bat egiteak hainbat abantaila ditu. Zure seme-alabak praktika erabilgarria eskuratuko du, ikasketarako trebetasun baliagarriak garatuko ditu eta bere buruarekiko konfiantza handituko du.

NOLAKOAK DIRA AZTERKETA HORIEN MAILAK IKASTETXEETAKO EDO AKADEMIETAKO MAILEKIN ALDERATUTA?

Azterketa eta proba formal gehienek HEEEB-rekin egiten dute bat. Ikastetxe, unibertsitate eta hizkuntza-eskola gehienek euren curriculumak eta ikastaroak HEEEB-ren baitan zehazten dituzte. Normalean, ingeles ikasleek 200 ikasketa-ordu inguru behar dituzte HEEEBko maila bakoitza gainditzeko.

<https://support.cambridgeenglish.org/hc/en-gb/articles/202838506-Guided-learning-hours>

ZER DA HEEEB?

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua (HEEEB) Europako edozein hizkuntzatan den gaitasun-maila deskribatzen duen nazioarteko estandarra da. Gaitasun horiek hitz bakan batzuk ezagutzetik hizkuntza bat ia bere osotasunean ezagutzera doaz. Hiru maila bereizten dira, A, B eta C eta maila bakoitza, aldi berean, bi zatitan banatzen da: 1 eta 2. Horrela, A1 mailak hasiberrien maila adierazten du eta C2 mailak, berriz, maisutasuna.

ZEIN DA PAPEREA EDO ORDENAGAILUAN EGINDAKO AZTERKETEN ARTEKO ALDEA?

Ordenagailuz egiten diren azterketak, paperean egiten diren azterketak bezala, gela batean egiten dira beste hautagaiekin batera, baina, kasu horretan, idatzizko atalak erabilerraza den softwarea duen ordenagailu batean egiten dira. Oso esperientzia eroso da eta abantailetakoa bat honako hau da: hautagaiek euren erantzunak edita ditzakete modu garbian azterketa bidali aurretik. Mintzamen atala ez da ordenagailu bidez egiten eta zure seme-alabak atal hori trebetasun handiko irakasle baten aurrean egin beharko du.

NOLA JAKIN DEZAKET UNE HONETAN NIRE SEME-ALABAK DUEN INGELES MAILA?

Zure seme-alabaren ingeles irakasleak zein azterketa den egokiena erabakitzen lagunduko zaitu. Gainera, azterketa hori prestatzen laguntzeko aholkuak ere eman diezazkizuke.

NOLA LAGUN DEZAKET NIRE SEME-ALABA AZTERKETA PRESTATZEN?

Gurasoa zaren heinean, hainbat modutan lagun dezakezu zure seme-alaba egin behar duen azterketa hori prestatzen. Azterketa prestatzeko berariazko ikastaro batean zure seme-alabak irakaslearen esperientziaz eta ezagutzaz bali

daiteke. Gurasoek, gainera, euren seme-alabak lagun ditzakete etxean. Astero online ataza batzuk egitea oso lagungarri suerta daiteke. Ideia ona da ordutegi bat zehaztea ingeleseko ataza horiek elkarrekin egiteko, adibidez, astero arratsalde bat, ingeles eskolaren ondoren edota asteburuan.

ZERTARAKO ERABIL DEZAKE NIRE SEME-ALABAK BERE AZTERKETA?

Bertako zein atzerriko hainbat ikastetxek, unibertsitatek, enplegu-emailek eta erakundek ingeles maila altua eta horren ziurtagiria eskatzen dute. Horregatik, ikasteko zein lan egiteko, oso garrantzitsua da nazioarte mailan aintzatespena duen egiaztagiri bat lortzea. Online ikus dezakezu zein erakundek onartzen dituzten ingeles hizkuntzako azterketa horiek.

www.cambridgeenglish.org/why-cambridge-english/global-recognition/index.aspx?s=1

ZERGATIK AUKERATU CAMBRIDGEKO AZTERKETAK?

Guraso eta irakasle gehienek Cambridge English Qualifications aukeratzen dute estandar altuenekin bat egiten dutelako eta eskola-adineko ikasleentzat ingeles hizkuntzaren ikaskuntza dibertigarria, eraginkorra eta onuragarria egiten duelako. Tokiko zein atzerriko milaka hezkuntza-erakundek eta enplegu-emailek aintzat hartzen dituzte azterketa horiek. Azterketa aukera zabala dago eta egitura garbia duen esparrua ematen dute ikasketa helburuak garbi izateko. Pausoz-pausoko gerturapen bati esker, Cambridge English azterketek aukera ematen diete haur eta nerabeei konfiantza eraikitze, euren ingelesa hobetzeko eta bizitza errealean komunikatzeko beharrezkoak diren gaitasunak garatzeko. Azterketa horiekin zuen seme-alabak ikasketetarako, lanerako edo bere bizitzarako dituen hizkuntza-helburuak lortzeko aukera izango du.

ZEIN CAMBRIDGE AZTERKETA EGIN BEHARKO LUKE NIRE SEME-ALABAK?

Cambridge English: Young Learners azterketetan zure seme-alabak jarduera motibagarriak aurkituko ditu. Azterketa egitean, primary eta lower-secondary mailetakoa ikasleek euren ingeles maila hobetu eta horrelako azterketak egiteko konfiantza beregana dezakete. Cambridge English: Key and Preliminary azterketak, berriz, nerabeei laguntza eskaintzen die etorkizunean egin ahal izango dituzten maila altuagoko azterketetarako prestatzen. Cambridge English: First azterketaren bidez lor daitekeen B2 maila helburu komuna izaten da ingelesa ikasten duten nerabeentzat. Cambridge English: Advanced edo



Proficiency azterketen bidez lor daitezkeen C1 edo C2 mailak berriz, oso lorpen garrantzitsuak dira eta hizkuntzaren ezagupen maila altua adierazten dute. Cambridge Englishek online egin daitekeen doako mailaketa proba bat du gehien komeni zaizuen azterketa zein den jakiteko.

NOLA EBALUATZEN DIRA CAMBRIDGE ENGLISHKO AZTERKETAK?

Cambridge English azterketetan ingelesez komu-
nikatzeko gaitasunak ebaluatzen dira: mintzamina,
idazmena, entzumen eta irakurmena. Gainera,
gramatika proba bat ere bada. Zure seme-alabak,
emaitza orokorra ez ezik aipatu atal bakoitzean lortu
duen emaitza ere azaltzen duen emaitza-orri bat
jasoko du. Emaita orokorra da, Hizkuntzetarako
Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren mailetan
oinarrituta, zure seme-alabak ingeles hizkuntzan
duen gaitasuna azalduko duen emaitza. Starters,
Movers eta Flyers azterketetan haurrek parte-
harteagatik bakarrik egiaztigiri bat jasotzen dute
eta atal bakoitzean lortutako emaitza bost ezkututan

oinarritutako sistema baten bidez islatzen da.

**Cambridge English
for Schools**

**ZER DA DESBERDINA CAMBRIDGE ENGLISH
FOR SCHOOLS AZTERKETETAN?**

Cambridge English: Key, Preliminary eta First
for Schools azterketek egitura eta nazioarteko
aintzatespen berbera dute baina proba bakoitzean
azaltzen diren edukiak interesgarriagoak dira eskola-
adinean diren gazteentzat.

**NOLA JAKIN DEZAKET NIRE SEME-ALABA
AZTERKETARAKO PREST DAGOEN ALA EZ?**

Zure seme-alaba prest dagoen ala ez jakin dezakezu
elkarrekin proba bat egiten baduzue. Cambridge
English badiu azterketa bakoitzeko halako doako
ereduak.

ZEIN DA CAMBRIDGE ENGLISH AZTERKETEN EGITURA ESKOLA-ADINEAN DIREN IKASLEENTZAT?

Hauexek dira haurrentzat eta nerabeentzat aukeran diren Cambridge English azterketak.

Azterketa	HEEEB	Lorpena	Edukia	Puntuazioa
STARTERS MOVERS FLYERS	A1 aurrekoa A1, A2	Ingeles hizkuntzako azterketetarako sarrera- azterketak dira eta lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako lehen ikasturteetako ikasleei zuzenduta daude. Ingelesez ezagunak dituzten gaien inguruan komunikatzean konfiantza eskuratzeko baliagarria izaten zaie.	Hiru proba: Irakurmena eta idazmena, entzumen eta mintzamina.	Proba bakoitzean bost Cambridge ezutu lortzeko aukera dago
KEY FOR SCHOOLS	A2	Eguneroko bizitzan modu sinplean komunikatzeko eta ingeles hizkuntzaren oinarritzko gaitasunak menperatzen direla egiaztatzen da.	Hiru proba: Irakurmena eta idazmena, entzumen eta mintzamina.	Pass with Distinction, Pass with Merit, Pass, A1 maila
PRELIMINARY FOR SCHOOLS	B1	Eguneroko ikasketetan eta bizitza sozialean komunikatzeko. Ingeles hizkuntzaren oinarritzko gaitasunak menperatzen direla egiaztatzen du.	Hiru proba: Irakurmena eta idazmena, entzumen eta mintzamina.	Pass with Distinction, Pass with Merit, Pass, A2 maila
FIRST FOR SCHOOLS	B2	Ingeles hizkuntza nagusi den testuinguru batean konfiantzaz komunikatzeko gaitasuna, bai ikasketetan, bai bizitza sozialean zein lanean.	Lau proba: Irakurmena eta gramatika, Idazmena, Entzumen eta Mintzamina.	A, B edo C edo B1 maila
ADVANCED	C1	Ingelesez komunikatzeko gaitasuna maila altu batean bai ikasketetan, bai lanean, bai bizitza sozialean.	Lau proba: Irakurmena eta gramatika, Idazmena, Entzumen eta Mintzamina.	A, B edo C edo B2 maila
PROFICIENCY	C2	Ingelesez komunikatzeko gaitasuna maila oso altu batean bai ikasketetan, bai lanean, bai bizitza sozialean.	Lau proba: Irakurmena eta gramatika, Idazmena, Entzumen eta Mintzamina.	A, B edo C edo C1 maila

www.cambridgeenglish.org/exams-and-tests/qualifications/schools

**AZTERKETA BAT EGIN
BRITISH COUNCILAREKIN**

British Councilarekin zure seme-alabak azterketa-zerbitzu seguru, positibo
eta zuzen bat izango duenaren bermea duzu. Jarraian, hainbat gurasok
azterketa bat gurekin egitearen inguruan egin dituzten zenbait galdera
dituzue.

NOLA BERMATZEN DA KALITATEA?

Adituak gara ingeles hizkuntzaren irakaskuntzan eta
ebaluazioan. Gure esperientzia handiko langileriak
trebakuntza jarraitua jasotzen du British Councilen
eta azterketa egileen kalitate estandarrekin bat
egiteko.

[www.britishcouncil.es/eu/azterketak/
zergatik-azterketa-egin-gurekin](http://www.britishcouncil.es/eu/azterketak/zergatik-azterketa-egin-gurekin)

**NOLA AUKERATZEN DITUZUE
AZTERKETAK EGITEKO EGOITZAK?**

Azterketak antolatzen ditugu ikastetxeetan eta
arduraz aukeratutako bestelako egoitzatan. Horiek
guztiak erosoak, lasaiak eta seguruak direla
bermatzen dugu. Ordenagailu bidez egiten diren
azterketak eta entzumen probak abangoardiako
ekipamenduarekin egiten dira.

**NOLA LORTZEN DUZUE TESTUINGURU
SEGURUA ETA LAGUNKOIA ADIN GUTXIKO
HAUTAGAIEKIN?**

Horretarako espresuki prestatutako gure langileria
zure seme-alabaz arduratuko da, bai azterketetan
bai eskoletan, esperientzia seguru eta lagunkoia
bermatzeko. British Councilaren ardura da haur
eta gazteen ongizatea babestea eta sustatzea
eta horretarako haurren babeserako politika bat
garatu dugu. Azterketak egiten ditugun egoitza
guztietan zure sema-alaba uzteko eta jasotzeko
politikak dituzte. Horien gaineko informazio guztia
jasoko duzue azterketa baino lehen.

[www.britishcouncil.es/eu/guri-buruz/haur-
babesa](http://www.britishcouncil.es/eu/guri-buruz/haur-babesa)

**ZER GERTATZEN DA NIRE SEME-ALABA,
BAT BATEAN, GAIXORIK JARTZEN BADA
EDO BERANDU IRISTEN BADA?**

Zure seme-alaba berandu iristen bada azterketa egunean
edo, azterketa egiten ari denean, gaixorik jartzen bada,



azterketari dagokion arau eta erregulazioaren baitan
irtenbide bat ematen saiatuko gara.

**AZTERKETARAKO IZEN-EMATEA
ESKOLAREN EDO AKADEMIAREN BIDEZ
EGIN BEHAR DUT?**

Eskola-adinean diren hautagai gehienek azterketan
izena ematen dute euren eskola edo akademiaren
bidez. Hala ere, zuzenean eman ahal duzu gurekin
edo gure web gunearen bidez.

[www.britishcouncil.es/eu/azterketak/
cambridge/matrikula](http://www.britishcouncil.es/eu/azterketak/cambridge/matrikula)

**ZER EGIN DEZAKEZUE BEHAR BEREZIAK
DITUZTEN HAUTAGAIEKIN?**

Gure helburua da hautagai bakoitzari tratatu zuzen
eta objektiboa bermatzea. Ahal dugun guztia egiten
dugu hautagaiek izan ditzaketen behar bereziei
irtenbide egokia emateko, bai azterketa egoitzara
iristeko bai azterketan diren galderak ulertzeko
edo erantzunak emateko. Azterketa baino lehen

ZEIN LAGUNTZA ESKAINTZEN DIE BRITISH COUNCILEK HAUTAGAIEI, IRAKASLEEI EDO ESKOLEI?

Gure xedea azterketa egunetik haratago joatea da. Gure arreta zerbitzuak zuri eta zure seme-alabari laguntza eskainiko dizue azterketaren etapa guztietan. Gainera, hautagaiei zein irakasleei, azterketak prestatzeko kalitate handiko baliabideak ere eskaintzen dizkiegu.

Azterketa gurekin egiteko matrikulatzen dituzten eskola eta hizkuntza-akademiei gure Addvantage fidelizazio-programan parte-hartzerak gonbidatzen ditugu. Aipatu programan parte hartzen duten kideek hainbat abantaila eta baliabide lor ditzakete, hala nola, azterketak online zuzentzeko aukera, ikastetxeen arteko lehiaketak, azterketak prestatzeko azken tekniken inguruan irakasleak trebatzeko aukera, eta beste hainbat. Addvantage programaren inguruan argibide gehiago izateko jar zaitez zure zentro aztertzailearekin harremanetan.

www.britishcouncil.es/eu/azterketak/eskolak-akademiak/zerbitzuak

komenigarria litzateke gurekin harremanetan jartzea zuen seme-alabak beharren bat balu eskura diren laguntzen berri izateko. Mesedez, jar zaitezte gurekin harremanetan azterketa eguna baino hiru hilabete lehenago.

www.britishcouncil.es/eu/guri-buruz/aukera-berdintasuna-aniztasuna

NOLA KOMUNIKATZEN DA BRITISH COUNCIL HAUTAGAIEKIN ETA ESKOLEKIN?

Harreman erregularra izaten dugu ikastetxeekin eta hizkuntza-eskolekin gure azterketa administrazio taldearen bidez. Horrela, azterketen inguruko azken berriak eta azterketa egunean izan daitezkeen edozein iragarpen jasotzeko aukera dute.

HAURREK PRESTAKUNTZA IKASTAROREN BAT EGIN BEHAR DUTE CAMBRIDGE ENGLISH AZTERKETA BAT EGITEKO?

Ez da derrigorrezkoa Cambridge English azterketa bat egiteko aldez aurretik prestakuntza ikastaroren bat egitea, baina ikastaro horiek hainbat abantaila eskaintzen dituzte. Trebakuntza eta esperientzia handiko irakasle batek zure seme-alabaren ikaskuntza egituratzen lagun dezake baita haren

hizkuntza gaitasunaren inguruko ebaluazioa egin ere. Gainera, klasean ingelesa praktikatzeko aukera izango du bere ikaskideekin.

NOLA LORTUKO DITU NIRE SEME-ALABAK BERE EMAITZAK ETA ZIURTAGIRIA?

Paperean egiten diren Cambridge English azterketen emaitzak azterketa egunetik lau-sei astetara ematen dira ezagutzera. Ordenagailuz egiten diren azterketen kasuan, berriz, epe hori bi aste ingurukoa da. Cambridge English: Young Learner azterketen kasuan emaitzak, gutxi gora behera, zortzi aste beranduago ematen dira ezagutzera. Zure seme-alabaren ikastetxeak edo hizkuntza-eskolak bere emaitzak ikusi ahal izango ditu Cambridge Englishen web atarian. Hautagaiek ere zuzenean euren notak ikusteko aukera dute emaitzen online zerbitzuaren bidez. Ikastetxe edo hizkuntza-eskola baten bidez izena-eman baduzu lortutako ziurtagiria hara bidaliko da.

<https://candidates.cambridgeenglish.org/>

NOLA ESKATU AHAL DUT DIRU-ITZULKETA EDO ALDAKETAREN BAT NIRE SEME-ALABAREN AZTERKETAN?

Kasu horretan, arren, zure seme-alabaren ikastetxe edo hizkuntza-eskolarekin hitz egin beharko duzu. Gurekin zuzenean izena eman baduzu, azterketa hori kudeatuko duen British Councilaren egoitzarekin harremanetan jarri beharko duzu. Kasu horietan diru-itzulketa edo eskatutako aldaketa arrazoitzen duen egiaztagiriren bat aurkezteko eskatuko zaizu.

ZIURTAGIRIA GALTZEN BADUT ETA KOPIAREN BAT BEHAR BADUT?

Cambridge Englishek ezin ditu galdutako ziurtagiriak ordezkatu, baina ziurtagiria lortu duzula egiaztatzen duen agiri bat eskatzeko aukera duzu. Bertan, ziurtagiria lortu duzula baieztatzen da.

www.cambridgeenglish.org/help/lost-certificates/

ZER EGIN DEZAKET NIRE SEME-ALABAREN EMAITZAREKIN ADOS EZ BANAGO?

Zure seme-alabak lortu duen emaitzarekin ados ez bazaude, azterketaren beste zuzenketa bat eskartu ahal duzu British Councilaren azterketa sailan. Cambridge Englishek oso prozedura zorrotza du azterketa guztiak behar bezala zuzentzen direla bermatzeko. Azterketa beste behin zuzentzea eskatzen baduzu diru-kopuru bat ordaindu beharko duzu.

ZURE SEME-ALABA INGELES AZTERKETETARAKO LAGUNTZEN

Gurasoek ez dute ingeles maila altua izan behar euren seme-alabei ingeles azterketa prestatzen laguntzeko. Zuen laguntzak eta kemenak euren motibazioan eragin handia izan dezake. Etxean egin dezakezuen lana ikasgelan ikasitakoa sendotzeko modu ezin hobea izan daiteke eta, horrela, azterketan lortu nahi duen emaitza lortzen lagundu ahal diozue.

5–12 urte bitartekoak

Haurrek ondo egin ahal dute azterketarako beharrezkoak diren edukiak ikasten eta gurasoekin zenbait ariketa dibertigarri praktikatzin. Horrek hain urduri ez egoten lagunduko die.

13–18 urte bitartekoak

Nerabeek ondo molda daitezke euren ikasketa ondo planifikatzen badute eta denbora nahikoa ematen badute ikasten. Horrela, azterketa egiteko konfiantza bereganatuko dute eta urduritasun mailak ere behera egingo du. Hainbat nerabek zailtasunak dituzte ondo antolatzeko eta behar den denbora ikastera bideratzeko eta hor da, hain zuzen ere, non gurasoek gehien lagun dezakezuen.

Nola lagun dezaket nire seme-alaba abian jartzen?

Hainbat modutan lagun dezakezu zure seme-alaba bere azterketa prestatzen. Hemen dituzue zenbait gomendio etxean landu ahal izateko.

■ Azterketara ohitu

Azterketaren web gunean zure seme-alabak egingo duen azterketaren inguruko argibideak eta praktikatzeko ariketak aurkituko dituzue. Lagundu ahal diozu egokien diren baliabideak aukeratzen.

■ Lagundu plangintzarekin

Etxean ikasteko gune bat eta errepasorako ordutegia prestatu. Hau oso eraginkorra da, bereziki, aldi berean ikastetxeko azterketak egin behar dituzten nerabeen kasuan.

■ Ikusi praktikako azterketa

Galdetu zure seme-alabari azterketako atal desberdinetan diren galderak erantzuteko ikasi dituen estrategien inguruan praktikako azterketa osatu baino lehen.

■ Aurkitu praktikarako online azterketa

British Councilen [LearnEnglish Kids](#) web gunea ingelesa ikasten ari diren 5-12 urte bitarteko haurrentzako web dibertigarri eta hezitzailea da. Hiztegi eta gramatika jokoak, abestiak, istorioak eta bideoak aurkituko dituzu. Ariketak haurrek bakarrik, lagunekin, gurasoekin edota irakaslearekin egin ditzaten diseinatura daude.

British Councilen [LearnEnglish Teens](#) web gunean hainbat baliabide daude zure seme-alabak bere ingelesa praktika eta hobe dezan. [Skills](#) atalean entzumena, irakurmena eta idazmena praktikatzeko jarduerak aurkituko dituzue, azterketan aurkituko dituzuen ariketen antzekoak. Bada ere [Exams](#) atalean izeneko atal bat; bertan, zure seme-alabaren azterketa prestatzeko hainbat aholku eta informazio aurkituko duzue.

British Councilen [Learn English Exams](#) web gunea Cambridge English: First for Schools eta Advanced azterketak prestatzen ari diren nerabeei laguntza emateko diseinatura dago. Bertan, Irakurmena, Entzumena, Gramatika, Mintzarena eta Idazmena ataletarako aholkuak, estrategiak eta praktikatzeko ariketak aurkituko dituzue. Web gunea aproposa da edukiak errepasatzeko eta azken orduko praktikak egiteko.

■ Laguntza erantzunekin eta ulermenarekin

Animatu zure seme-alaba praktikako azterketan eman dituen erantzunak errepasatzera eta hausnartu ondo eta gaizki dituen erantzunen inguruan eta zergatik.

■ Lagundu kontzentrazioarekin

Nerabeen kasuan normala izaten ohi da sarritan arreta galtzea ikasten ari diren bitartean. Musika mota batzuk entzutea lagungarri izan dezakete.

■ Laguntza eskatu

Hitz egin zure seme-alabaren irakaslearekin edo azterketa sailarekin zure seme-alabak egin behar duen azterketaren inguruko argibide edo aholku gehiago behar badituzu.

ZURE SEME-ALABARI AZTERKETA EGUNEAN ESKAINI AHAL DIOZUN LAGUNTZA

Jarraian ikus dezakezue gurasoek azterketa egunean euren seme-alabak laguntzeko egin dezaketenaren inguruko gure aholkuak.

» AZTERKETA BAINO LEHEN

Gurasoek zuen seme-alabak lagun ditzakezue azterketa egunari konfiantzaz aurre egin diezioten eta urduritasun maila murrizten. Adibidez:

- ✓ Irakurri azterketaren araudia elkarrekin.
- ✓ Errepasatu elkarrekin azterketa non eta noiz izango den
- ✓ Errepasatu azterketara eraman behar diren gauza guztiak

» AZTERKETA EGUNEAN

Azterketa egunean zure seme-alaba lagun dezakezu lasai egoten. Hone hemen zenbait aholku:

- ✓ Ziurtatu aurreko gauean zure seme-alabak behar bezala lo egiten duela.
- ✓ Ziurtatu denbora nahikoarekin iristen zaretela azterketa egingo den egoitzara.
- ✓ Gogoraziozu azterketan zaila suertatzen zaion galderaren bat topatzen badu hobde duela hurrengora pasatzea.
- ✓ Animatu bere onena ematera.

» AZTERKETA ONDOREN

Azterketa amaitu bezain pronto zure seme-alaba lagun dezakezu bere lanaren inguruan hausnarketa eginez eta positibo mantenduz. Adibidez:

- ✓ Galdetu zer moduz atera zaion azterketa.
- ✓ Erakutsi harro zaudela egin duen lanarengatik.
- ✓ Ospatu azterketa amaitu dela zerbait berezia eginez.

Zure laguntza ez da egun horretan bertan amaitzen. Horrela, emaitzak jasotzen dituzuenean horien inguruan eta ingeles hizkuntzaren ikaskuntzan eman beharreko pausuen inguruan ere hitz egin dezakezue.

ONLINE BALIABIDEAK GURASOENTZAT

British Council-ek hainbat online baliabide eta komunitate ditu gurasoentzat euren seme-alabei bere ingeles hizkuntzaren ikaskuntzan eta ingeles azterketen prestakuntzan laguntzeko.

Gurasoei espresuki zuzendutako gure web gunean zure seme-alabari ingeles hizkuntzaren ikaskuntzan laguntzeko hainbat aholku aurkituko dituzu. Bertan, ehunka baliabide aurkituko dituzu: abestiak, jokoak, istorioak, ariketak... Aldi berean, sakelako telefonoetarako edota tabletetarako gure aplikazioen berri ere aurkituko duzu.

<http://learnenglishkids.britishcouncil.org/en/parents>

Sar zaitez gure Facebook-eko gurasoen komunitate globalean eta zure seme-alaba bere ingeles hizkuntzaren ikaskuntza prozesuan laguntzeko hainbat aholku eta artikulua interesgarri aurkituko dituzu.

www.facebook.com/LearnEnglishParents.BritishCouncil



ONLINE BALIABIDEAK HAURRENTZAKO

Hemen dituzue Cambridge English: Young Learners azterketa prestatzeko zuen seme-alabarekin batera egin ahal dituzuen eta British Councilen LearnEnglish Kids web gunetik aukeratu ditugun jarduera nagusienak.

Irakurmena eta idazmena

Istorioak

Starters, Movers eta Flyersen azaltzen diren galdera gehienak istorioetan oinarritzen dira. LearnEnglish Kidsen haurrek ikus ditzaketen ariketekin datozen hainbat istorio aurkituko dituzue. Ariketa horiek, azterketa prestatzeko baliagarri izateaz gain, hiztegia eta hizkuntza-gaitasunak hobetzeko modu ezin hobe ere badira.

<http://learnenglishkids.britishcouncil.org/en/short-stories>

Azalpenezko testuak

Young Learners azterketetan haurrek azalpenezko testuetan oinarritutako galderak ere erantzun beharko dituzte. LearnEnglish Kidsen den irakurmena praktikatzeko atalean haurrek testu mota horiekin praktikatzeko aukera dute. Gogoratu zure seme-alabak duen mailara egokitutako ariketak aukeratu beharko dituzuela, A1 aurrekoa, A1 edo A2, betiere, egin behar duen azterketaren arabera.

<http://learnenglishkids.britishcouncil.org/en/reading-practice>

Hiztegia

Young Learnersen haurrek egin beharko duten beste ariketa bat esaldi laburrak irakurri eta hitzak antzematea izango da. LearnEnglish Kidseko gramatika eta hiztegia atalean hori lantzeko aukera izango dute ezagunek dituzten gaiekin, hala nola, koloreak, animaliak, jantziak, oporrak edota ingurumena. Haurrak joko dibertigarrietara jolastuko dira hitzak antzematen dituzten aldi berean!

<http://learnenglishkids.britishcouncil.org/en/word-games>

Ortografia

Zuzen idaztea garrantzitsua da YLE azterketetako irakurmen eta idazmen ataletako ariketa guztietan. Haurrek euren ortografia landu ahal izan go dute LearnEnglish Kidsen den ortografia atalean.

<http://learnenglishkids.britishcouncil.org/en/spell>

Gainera, haurrek ingeles hizkuntzan diren hitz korapilatsuenak praktikatu ahal izango dituzte joko dibertigarri hauekin:

<http://learnenglishkids.britishcouncil.org/en/tricky-words>

Mintzamena

Zure burua aurkeztu

Starters, *Movers* eta *Flyers* azterketetako mintzamen probako lehen ariketan haurrek euren izena, abizena eta adina esan beharko dute. Zure seme-alaba lagun dezakezu konfiantza bereganatze ariketa hori etxean praktikatzuz elkarri honako galderak eginez: *'What's your name?'*, *'What's your family name?'*, *'How old are you?'*. Eta zergatik ez, ondo pasatu zure izena edo adina alderantziz letreiatuz! Horrelako ariketa dibertigarrietarako, non haurrek soinu eta hiztegiaren inguruan ikasi eta euren entzumen-gaitasuna hobeto ditzaketen, LearnEnglish Kidsera jo.

<http://learnenglishkids.britishcouncil.org/en/games>

Ozen esan: mintzamena praktikatzeko ideia ona da hitzak ozen esatea. Horretarako, adibidez, hasi zuk lehengo hitza ozen esanez eta ondoren eskatu zure seme-alabari errepikatzeko. LearnEnglish kidseko *Speak* atalean haurrek hitzak ozen esateko praktika dibertigarriak aurkituko dituzte.

<http://learnenglishkids.britishcouncil.org/en/speak>

Hotsak

Lanean hasteko eta gainera ondo pasatzeko modu ezin hobe zure seme-alabarekin *'I spy'* jokora jolastea da. Joko horretara jolas zaitezke ingeles hizkuntzan diren antzeko hotsak praktikatzeko. Adibidez, *I spy with my little eye, something that sounds like 'clock'*. Eta, horren aurrean, adibidez, honako hitz hauek erabil ditzakezu: *'broccoli'*, *'chocolate'* edo *'crocodile'*.

<http://learnenglishkids.britishcouncil.org/en/sounds/jacks-i-spy>

Entzumena

Solasaldiak

Young Learners azterketetako entzumen probetan azaltzen diren hainbat galdera pertsona heldu eta haur baten arteko solasaldi batean oinarritzen dira. Horrelako ariketak LearnEnglish Kidseko *Grammar with Gran and Kitty* atalean praktika daitezke. Bertan, zure seme-alabak Cambridge English: Young Learner azterketetan azaltzen diren gramatika puntu komunak dituzten hainbat bideo eta ariketa aurkituko ditu.

<http://learnenglishkids.britishcouncil.org/en/grammar-videos>

Irudiak eta abestiak

Starters, *Movers* eta *Flyers* azterketetako entzumen probetan azaltzen ohi den beste ariketa bat irudi batean oinarritutakoa da. Hau praktikatzeko modu dibertigarria abestiak eta bideoak entzutea da. LearnEnglish Kidseko *Songs* atalean hainbat abesti eta bideo aurkituko dituzue, tradizionalak zein modernoak. Zure seme-alabak ingelesez azaldu ahal dizu irudietan ikusten duena. Zergatik ez duzue elkarrekin abesten ahoskera hobetzeko?


<http://learnenglishkids.britishcouncil.org/en/songs>

Haurrentzako askoz baliabide gehiago daude LearnEnglish Kids web guneko atal bakoitzean.



ONLINE BALIABIDEAK NERABEENTZAT

Jarraian, British Councilen LearnEnglish Teens web gunean arrakasta handia duten zenbait jarduera aurkezten dizuegu. Ezagunak dituzten gaietan oinarritua, nerabeei euren Cambridge English: Key, Preliminary, First eta Advanced azterketak prestatzen lagunduko diete.



Gramatika eta hiztegia

Gramatika eta hiztegia atalean azterketako gramatika eta hiztegia probetarako aholkuak aurkituko dituzue. Gramatika eta hiztegia aztertzeko hainbat modu daude eta atal horretan horietako batzuk ezagutzeko aukera izango duzue.

<http://learnenglishteens.britishcouncil.org/exams/grammar-and-vocabulary-exams>

Ikasteko aholkuak

Ikasteko aholkuen atalean azterketetan emaitza hobekuntza lortzeko aukera emango dizueten hainbat aholku aurkituko dituzue. Behar bezala lo egitea, ondo elikatzea eta ikasketa orduak ondo planifikatzea dira, nagusiki, atal horretan jorratzen diren ardatzak.

<http://learnenglishteens.britishcouncil.org/exams/exam-study-tips>

Entzumena

Entzumen atalean azterketa desberdinetan izan daitezkeen entzumen proba desberdinen inguruko aholkuak aurkituko dituzue. Bertan, entzumen proba baino lehen eta proban zehar ahalik eta puntuazio altuena lortzeko zer egin dezakezuen azaltzen da.

<http://learnenglishteens.britishcouncil.org/exams/listening-exams>

Irakurmena

Irakurmen atalean azterketa desberdinetan izan daitezkeen irakurmen proba desberdinen inguruko aholkuak aurkituko dituzue. Bertan, irakurmen proba baino lehen eta proban zehar ahalik eta puntuazio altuena lortzeko zer egin dezakezuen azaltzen da.

<http://learnenglishteens.britishcouncil.org/exams/reading-exams>

Idazmena

Irakurmen atalean azterketa desberdinetan izan daitezkeen irakurmen proba desberdinen inguruko aholkuak aurkituko dituzue. eta nagusiki idazlanaren planifikazioan eta idazketari zein errepassoari eman behar zaion denboran zentratzen da.


<http://learnenglishteens.britishcouncil.org/exams/writing-exams>

Mintzamena

Mintzamen atalean azterketa desberdinetan izan daitezkeen mintzamen proba desberdinen inguruko aholkuak aurkituko dituzue. Ahozko proba egiten ari diren benetako sei hautagaien bideoak ikus daitezke.

<http://learnenglishteens.britishcouncil.org/exams/speaking-exams>

Nerabeentzako baliabide gehiago daude LearnEnglish Teens web guneko atal bakoitzean.



NERABEENTZAKO ONLINE BALIABIDE GEHIAGO

Cambridge English: First edo Advanced azterketak prestatzen ari diren hautagaiak laguntzeko British Councilen duen online baliabide nagusietako bat Road to Success in First and Advanced web gunea duzue.

Web guneak azken orduko praktikak eta errepassorako ariketak eskaintzen ditu. Road to Successen hautagaiak Cambridge First, First for Schools eta Advanced azterketak egin baino lehen euren ezagutza, gaitasunak eta segurtasuna sendotu dezakete.

Online baliabide horrekin ahal izango duzu:

- Irakurmena eta gramatika, entzumena, idazmena eta mintzamena proben inguruko aholkuak jaso.
- Galdera mota desberdinak erantzuten lagunduko dizuten aholkuak eta estrategiak jaso.
- Azterketaren atal desberdinekin harremana duten ariketak praktikatu eta estrategia

desberdinak aplikatu.

- Zure ikaskuntzaren inguruan hausnartu eta ulertu zergatik erantzun bat zuzena edo okerra den eta hurrengoan nola hobetu dezakezun ikusi.
- Ingeles hizkuntzako gaitasunak hobetzeko aholkuak jaso.

Road to Success in First and Advanced bakarrik eskuragarri daude British Councilarekin izena ematen duten ikastetxeentzat, hizkuntza-eskolentzat eta hautagaietzat. Argibide gehiagorako galdetu zure seme-alabaren irakasleari edo zure azterketa-egoitzan.

<http://learn-english-exams.britishcouncil.org>



ARGIBIDE GEHIAGO

LearnEnglish Kids

www.britishcouncil.org/learnenglishkids

www.youtube.com/user/BritishCouncilLEKids

LearnEnglish Teens

www.britishcouncil.org/learnenglishteens

www.youtube.com/user/BCLearnEnglishTeens

www.facebook.com/LearnEnglishTeens.BritishCouncil

LearnEnglish

<http://learnenglish.british-council.org/en>

www.twitter.com/LearnEnglish_BC



© Mat Wright

© British Council 2018

Erresuma Batuko nazioareko erakundea harreman kulturaletarako eta hezkuntza aukeretarako. Ongintzarako erakunde erregistratua: 209131 (Ingalaterra eta Gales) SC037733 (Eskozia).